

ORDIZIA ▶ ERRUGBIA

'Haurugby' torneoa jokatuko dute bihar Trevijano zelaian

Haurrentzako nazioarteko errugbi txapelketan guztira 12 talde lehiatuko dira



Ordiziako infantiletako mutiek indarrak neurtuko dituzte nazioarteko hainbat talderekin asteburu honetan TrevijanON. ORDIZIA ERRUGBI ELKARTEA

MAIDER DEL OLMO

Ordizia Errugbi Elkartek haurrentzako torneoa antolatu du: *Haurugby 2005*. Bihar jokatuko da Trevijano zelaian, eta guztira nazioarteko 12 taldeko gaztetxoak lehiatuko dira. Goizeko 10:00etan egingo diote torneoaren lehenengo faseari, eta eguerdian paella-jana

erraldoia egingo dute indarrak berritzeko.

Arratsaldean jokatuko dituzte finalak, 15:15etik aurrera. Bigarren fasea jokatuko dute orduan. Arratsaldeko 16:45ean, berriz, Ordiziako Udala Txapelketaren finala izango da, eta, ondoren, 17:15ean, Hagapeko Txapelketa. Arratsaldeko 19:00etan egingo dute sari ba-

naketa. Honako talde hauek parte hartuko dute torneoan: Aviron Bayonnais, Biarritz Olympique, A.S. Salisienne, Liceo Frances, Stade Hendayes, Sarako Izarra, Durango R.T, Vrac-Quesos Entrepinares, Hernani R.T, U.S. Larressore, Hasparren A.C eta Ordizia Rugby.

Bestalde, igandean Ayma Or-

dizia taldekoei omenaldia egingo zaie udaletxean. Taldea Ohorezko Mailara igo dela ospatzeko ekitaldia izango da, eguerdiko 12:00etan hasiko da. Bertan herriko beste bi kirolariri ere egin nahi zitzaizten omenaldia, Josune Bereziartu eta Rikar Otegi eskalatzailerei, baina kanpoan dira eta ezin izango dute parte hartu.

GOIERRI ▶

Eskolarteko bertso txapelketa jokatuko da gaur

Gipuzkoako Eskolarteko Bertso Txapelketako sailkapeneko saioa izango da gaur Ordizian. 15:00etan idatzizkoa egingo da Jakintza ikastolan, 16:00etan, berriz, bat-bateko saioa Herri Antzokian.

GOIERRI ▶

EHNA egin ahalko da gaur Ordizian eta Beasainen

Hileko azken ostiraletan bezala, EHNA egiteko aukera izango da gaur Ordizian eta Beasainen. Ordizian Jakes Etxean eta Beasainen udaletxean, 18:00etatik 20:00etara. Errolda agiria, koloredun bi argazki eta 15 euro aurkeztu behar dira.

BEASAIN ▶

Bide-pintaketak egingo dituzte hainbat kaletan

Gaur goizeko 09:00etatik aurrera bide-pintaketak egingo dituzte honako kaleetan: Esteban Lasa, Igartetxe, Ganbo diskoteka ondoan eta Artzai Enea plazan. Pintaketak egin beharreko lekuetan ezingo da ibilgailurik utzi, Udalak jakinarazi duenez.

ORDIZIA ▶ KULTURA

Maelomiza saxofoi laukoteak Barrenan gaur kontzertua eskainiko du

'Poltsikoko ikuskizunak' ekimenaren baitako emanaldia da; gaueko 22:30ean hasiko da

M. DEL OLMO

Maelomiza saxofoi laukoteak *Sax dance* ikuskizuna eskainiko du gaur gaueko 22:30ean Barrena kultur etxean. *Poltsikoko ikuskizunak* programaren hamalaugarren ekitaldia izango da. Ordiziako Udalak antolatzen du.

Maelomiza laukotea Silvia Merino, Mikel Elola, Mikel Mate eta Julen Izarrak osatzen dute, eta Ixak OIartzabal dute lagun perkusioan. Maelomiza saxofoi

laukoteak ikuskizun honetan dantzari ematen dio lehentasuna. Bi dantzari dira protagonistak: Jesus Maneiro eta Elena Alzuri. Bikoteak euren egindako koreografiak dantzatzeko dituzte, hainbat estilotako lanak interpretatuz: Rag Time, tangoa, pasodoblea eta funky-a. Ezohiko ikuskizuna dela nabarmendu dute antolatzaileek.

Zuzeneko musikaz, kolorez, mimoz eta istorioz jositako koreografiak ikusi ahalko dira Barrenan.



Sax dance ikuskizuna. HITZA

Ikus-entzuleari musika klasikoaren kontzertuetako aretoetan ohikoak diren kontzertuak ez bezalako gozatzeko aukera emango dio. Sarrera dohai-rik da; Udalak herritar denak gonbidatu ditu gaur gaueko saiora.

ORDIZIA ▶ GIZARTEA

Oiangu Bizirik taldeak agiria kaleratu du

«Ez gaude inoren aurka, parkearen izaera publikoa defenditzea da helburua», diote

M. DEL OLMO

Azken egunetan herrian izandako gertaeren harira, agiria kaleratu du Oiangu Bizirik eta Publikoak plataformak. Testu horretan diotenez, «ez gaude inoren aurka, ez lizenziaren kontra eta ezta Udalaren aurka ere. Gure asmoa ez da herrian tentsioa sortzea. Plataformaren helburu bakarra Oianguko parkearen izaera publikoa eta naturala aldarrikatzea da. Golfaren aurka eta kirol hori egiten dutenen kontra ere ez dugu ezer».

Plataformak uste du Oianguko parkea ez dela leku egokia ezaugarri horietako egitasmo batentzat. Horregatik, sinadurak biltzen jarraituko dutela berretsi dute. Haien esanetan, «ez dugu gezurrik esan. Proiektuaren inguruko geure iritzia kaleratzeko eskubidea dugu».

Bestalde, plataformak kontu zenbakia zabaldu du Kutxan hainbat gasturi aurre egiteko (abokatuak,...), eta herritarren laguntza eskatu dute: 2101 0073 10 0011594967 da zenbakia.